

ADITZ-AZPIKATEGORIZAZIOA

Izaskun Aldezabal Roteta

IXA taldea, UPV/EHU

1. Sarrera

Patxi Goenagaren *Gramatika bideetan* lanean irakurri nuen, hain zuzen, lehenengo aldiz *azpikategorizazio* terminoa; zehatzago esanda, *subkategorizapena*, orduan erabilitako terminoari estuki jarraiki. Hantxe ibiltzen ginen gustura “Euskal Morfosintaxia” ikasgaian, esaldien zuhaitzak egiten eta, besteak beste, aditzek (garai hartan *aditzen* azpikategorizazioaz mintzo baitzizaizkigun soilik) azpikategorizatu-tako *nor*, *nori* eta *nork* sintagmekiko komuntadura-erregelak aplikatzen. Esaldiko zuhaitzak egiterakoan, ordea, ez genuen berez aditz horren azpikategorizazioa lantzen, baizik eta delako aditzak esaldi horretan erakusten zuen azpikategorizazioa “egiaztatzen”; hots, esaldian ageri zuena zuhaitzetan deskribatzen saiatzen ginen. Erraza zirudien.

Ikasle garaiak bukatu-edo eta lanean hasteko unea iritsi zenean, hizkuntzalaritza konputazionalaren arloan beka batekin jarduteko parada suertatu zitzaidan Ixa taldean; gainera, aditzen azpikategorizazioa hartuta ikerketa-lan ildo bezala. Nik gustora asko hartu nuen proposamena, eta pentsatu nuen, “orain bai azpikategorizazioa zehaztu egin beharko dut, eta ez soilik egiaztatu”. Erronka polita zen.

Eta, hala, edozein ikergaitan bezalaxe, lehenengoz bere definizioaren bila jo nuen. Ez zailtasunik gabe, jakina.

Hizkuntzalaritza aplikatuan, definizio zehatzak behar-beharrezkoak dira, zehazgabetasunak leku gutxi baitu “ordenagailuari” informazioa zehazterako garaian. Ustez argi eta finkaturik dauden —edo finkatutzat jotzen diren— kontzeptuak, esaterako “hitza”, “subjektua”, “objektua”, “sintagma”, “elipsia”, “anbiguotasuna”... berrikusi eta azterketa automatikoei begira finkatu beharra daude. Ordenagailu baten begietatik ez baitugu hitzik, sintagmarik, subjekturik...; guztiak dira karaktere-segidak, elkarren artean konbinatuz unitate linguistiko orokorrakoak osatzen dituztenak. Hizkuntzalari konputazionalon zeregina, hain zuzen, horixe da: orotariko unitate linguistiko horiek arakatu eta definitzea. Azpikategorizazio kontzeptuarekin, beraz, gauza bera gertatzen zaigu. Alde batetik ikusi beharra dago historiak zer esaten duen, eta bestetik hori nola gauzatzen dugun ordenagailuarentzat.

Definizioaren bila egindako lanean (2 atala), historiari begiratu labur bat eman diot lehenik, euskaraz zer aurkitzen dugun aztertu dut gero, eta azkenik definizio zehatz bat ematen saiatu naiz nire ikerkuntza-jardunean aztertutakoaren ildotik (Aldezabal 2004).

Azalpenak, arazoak, hipotesiak eta irtenbideak kasu erreal baten gainean ikusteko, adibide bat erabili dut: *eman*. Horrekin batera, lan bat hartu dut konparagai: Morante-k (2004) *dar* aditzari buruz (*eman* aditzaren baliokide orokortzat jotzen denari buruz) egindako azterketa. Horiek denak 3. atalean azaldu ditut.

Eta azkenik, 4. atalean, laburki bada ere, baliabide konputazionalak eskaintzen dizkiguten aukerak azpimarratu ditut: alde batetik, eskura jarriko dizkigute azpikategorizazioaren azterketan sakontzeko datuak, eta bestetik, azpikategorizazio-informazioa tresneria konputazionalan txertatuta, beste zenbait atazetarako bidea irekiko digute. Azken batean, alor konputazionala etorkizunean ustiatu eta baliatu beharreko lerro gisa aldarrikatuko dut.

2. Zer da aditz baten azpikategorizazioa?

2.1. Ibilbide historikoa, labur

Azpikategorizazioaren historiari begiratu bat emanez gero, badirudi argi dagoela azpikategorizazioa zer den: oro har esanda, “aditzak eskatzen dituen osagaien gauzapean sintaktikoa”. Ordea, hori baldintzatzen duten ezaugarriak zeintzuk diren eta nola errepresentatu behar diren ez da gauza hain argia.

Ikuspegi tradizionalan, Chomskyren *Aspects of theory of Syntax* lanean (1965), aditzak aztertzerakoan objekturik onartzen zuten ala ez kontuan hartzen zen. Informazio hori lexikoan zehazten zen, eta baita erregela sintaktikoetan ere; lexikoa sintaxian txertatzen zenean, murriztapenak aplikatu, eta *aditz iragankorrak* eta *iragangaitzak* bereizten ziren. Aditzak iragankor eta iragangaitzetan “azpikategorizatzen” zirela esaten zen.

Hurrengo teorian, Gobernu eta Uztarduran, Chomskyk berak proposatutakoan (Chomsky 1981), ez da dagoeneko azpikategorizazioaz hitz egiten, baizik eta argumentu-egituraz. Aditzek lexikoan egitura tematikoa definituta dute, eta sintaxian bi printzipio aplikatuta (Kasu Iragazkiaren Printzipioa eta Egituraren Gauzatze Kanonikoaren printzipioa), pieza lexikalaren gauzapean sintaktikoa bideratzen da. Lexikoa idisinkratikotzat jotzen dute, eta sintaxia orokortzat, sistema konputazionaltzat, Lexikoa eta Sintaxia argi bereiziz. Printzipio hauen arabera, *aditz iragankorrak*, *aditz ez-akusatiboak* eta *aditz ez-ergatiboak* bereiziko dituzte.

Teoriak aurrera egin ahala, zenbait autore (Hale & Keyser 1987, 1991, Jackendoff 1990, Levin 1993, Pustejovsky 1995, besteak beste) hasiko dira proposatzen sintaxia eta semantikaren artean harremana badagoela, eta egitura sintaktikoek motibazio semantikoa dutela. Horrekin lexikoan egiturarik badela eta orokorragoa dela defendatuko dute. Hala, autore hauek lexikoan hainbat ezaugarri proposatuko dituzte, eta gauzapean sintaktikoa ezaugarri horien guztien konbinazioz sortuko da. Aditz-motak normalean semantikoak dira (gehienetan mota gutxi aztertzen dira) eta bakoitzari hainbat gauzapean sintaktiko egokitzen zaizkio.

Ildo konputazionalari dagokionez, hasierako formalismoetan —LFG: Lexical Functional Grammar (Bresnan eta Kaplan 1982), GPSG: Generalized Phrase Structure Grammar (Gazdar et al. 1985), eta HPSG: Head-Driven Phrase Structure Grammar (Pollard eta Sag 1987, 1994)— sintaxia eta semantikaren arteko harremana onartzen da, eta informazio hori lexikoan bertan edota erregela sintaktiko konplexuetan kodetzen da. Formalismo hauek normalean goiko teoretatik edaten

dutenez, aditz-motak semantikoak edo/eta sintaktikoak izan ohi dira: aditz bakoitzak bere kodeketa du eta garrantzia batez ere mekanismo sintaktikoari ematen zaio.

Beste zenbaitetan, eta gaur egun oraindik ere garapenean segitzen dutelarik —Framenet (Fillmore et al. 1976, 2000); Verbnet (Kipper et al. 2000, Palmer et al. 2005); PDT (Hajic et al. 2003); besteak beste—, sintaxiaren eta semantikaren arteko harremana onartuta, ale lexikal bakoitzean informazio semantiko eta sintaktikoa zehazten da, eta paraleloki corpus bat etiketatzen da informazio horren arabera. Horrela, lexikoa corpusean agertzen diren datu berriekin etengabe aberasten doaz. Azken batean, corpora, lexikoa behar bezala definitzeko alderdi beharrezkotzat jotzen dute.

Gauza da, terminologia gorabehera, adostasuna dagoela azpikategorizazioaren kontzeptuan, baina ez hori adierazteko eta gauzatzeko moduan. Gauzapean sintaktikoaz gain, ezaugarri semantikoak ere aipatzen dira (rol tematikoak, mota semantikoak...), eta horiek nola errepresentatu eta interpretatu da buru haustea.

Oro har esanda, batez ere hiru osagaien gauzapena aztertzen da: rol tematikoen bidez *kausa*, *agente* eta *gai* gisa jotzen direnena. Tratatzeko diren egitura sintaktiko arruntenak pasiboa, inpersonala eta inkoatiboa dira. Eta bestetik, lan masibo gehien-gehienak ingeleserako eginak dira. Horrekin asko geratzen da aztertzeke, eta euskaraz, betiere azpikategorizazioari gagozkiola, ia dena egiteke.

2.2. Euskaraz zer?

Arestian esan dugu lan masibo gehienak ingeleserako egin direla eta teoriak lehenik hizkuntza honetan aplikatu direla. Beste hizkuntzetan —areago euskara bezalako eremu urrikoetan eta normalizatugabeetan— hipotesien egiaztapenak eta egokitzapen-lanak egiten bakarrik badugu lanik. Zeregin honetan jada sortzen dira zalantza ugari, hizkuntza guztiei dagokiena orokortzen eta hizkuntza bakoitzari bereziki dagokiena zehazten hasten garenean.

Segidan, aditzaren inguruan euskarari buruz egin diren zenbait lanen zertzelada batzuk ematen saiatuko naiz.

Goenagaren *Gramatika bideetan* bertan ageri zaigu jada perpaus batzuen gramatikaltasuna konpontzeko “beste era bateko erregelak” beharra:

Guk orain ditugun erregelak bakarrik ezin gara oso urruti joan. Beraz, beste era bateko erregelak behar ditugu (Goenaga 1980:36)

Goenagak sintaxiaren atal nagusi bat moldatzen du euskararako, erregela sortzaile eta bihurtzaileez osatutako gramatika bat, baina ohartarazten du oinarrian egongo litzaitekeen hiztegia osatu beharra dagoela, gero sintaxian eraikitako zehaztasunekin bat etorri ahal izateko. Hiztegiaren hitzen tasunak egotea “subkategorizapen-arazo”ekin lotzen du, eta horrekin batera gramatikak hori nola jaso behar duen zalantza planteatzen du:

Hitz egokia txertatu ahal izateko, hiztegiaren hitz horrek dituen tasunak eta zehaztasunak SK-ak dituenak ados etorri behar dute. Esan beharrik ez dago era honetako hiztegi oraindik ez dagoela, ez euskaraz ez beste hizkuntzetan. Baina, gero agertuko diren zenbait arazo hobeto ulertu ahal izateko, egoki iruditzen zaizkizun subkategorizapenaren arazo honetaz zerbait esatea. (Goenaga 1980: 41)

Arazoa da ea nola jaso dezakeen kontu hori gure gramatikak. (Goenaga 1980: 36)

Gatozen, bada, euskararen gramatikan, Euskaltzaindiarenean *Euskal Gramatika laburrean* (Euskaltzaindia 1993) zehazki, jasotzen dena aztertzeraz.

Hasteko, ohartarazten zaigu aditzen sailkapena mota askotakoa izan daitekeela zein ezaugarri hartzen dugun oinarritzat. Sailkapen-mota bat “aditzak onartzen dituen kasu gramatikalen” arabera da:

...aditzoinak beste modu batera ere sailka daitezke: aditz bakoitzak onartzen dituen kasu gramatikaletan (hau da, nor, norik eta nori kasuetan) oinarritzen da beste sailkapen irizpide hau, aditzak erabakitzen baitu per-paus batean norik edo nori sintagmarik agertu behar duen edo ager daitekeen. (Euskaltzaindia 1993: 205)

Aditzak zein kasu onartzen dituen “aditzak erabakitzen” duela diote; beste modu batera esanda, aditzak hautatzen ditu, azpikategorizatzen ditu kasuok.

Eta segidan, sailkapen bat proposatzen dute.

Aditzak onar ditzakeen sintagmak kontuan hartuz, hortaz, sailkapen nagusi hau egin daiteke: aditz batzuk nor motakoak dira; beste batzuk, berriz, nor-nork motakoak:

- (34) Koldo berdur da ez ote den berriz ere eroriko
- (35) Mirentxuk bidean agurtu gaitu

(Euskaltzaindia 1993:205)

Nor-nork sailean, lehendabizi joera orokorra aipatzen dute:

Nor-nork sistemako aditzetan absolutiboan eta ergatiboan dauden sintagmak behar izaten ditugu normalean (nahiz hizkuntzak sintagma hauek izkurtuan uzteko aukera ere baduen):

- (36) [gure osabak] erosi omen du [etxea]
- (37) [guk] hiru bider bazkaltzen dugu [txakurra] egunero

(Euskaltzaindia 1993:205)

Eta ondoren, joera orokor horretatik kanpo geratzen diren azpimultzo batzuk bereizten dituzte:

— *Nor* “izuna” (faltsua) dutenak:

- *Nor* sintagmaren ordean inesiboa agertzen denean objektu bezala:

lanean dihardu
josten ikasi du

- *Nor* sintagma, berez, sintagma adberbiala denean:

filmak hiru ordu iraun ditu

- *Nor* sintagmarik ez duenean:

— *Nor-nori-nork* motako laguntzailea izanik:

amari deitu diot

— *Nor -nork* motako laguntzailea izanik:

urak irakin du
 nik bazkaldu dut
 ordulariak ez du funtzionatzen (aditz mailegatueta, askotan)

— *Nork* sintagmarik hartzen ez dutenak:

euria hasi du
 ez du merezi joatea(k) / lagunak ez du hori merezi
 horrela jokatzea(k) ez du balio

Nori sintagma ez dute aditz-sailetan aipatzen, baizik eta aparteko puntu batean:

Gehienetan *nori* sintagma aukerakoa da perpausa eratzeko orduan:

- (87) Joan da mundu honetatik
- (88) Joan zaigu mundu honetatik
- (89) Berandu iritsi zen berria
- (90) Berandu iritsi zitzaigun berria
- (91) Auto berria erosi dut
- (92) Auto berria erosi dit aitak
- (...)

Badira, hala ere, *nori* sintagma eskatzen duten aditzak. Horrela, *nor-nori* sailekoak ditugu *bururatu* eta *jarraiki*. Aldiz, *nor-nori-nork* sailekoak dira *ekin*, *iritzi*, *eutsi* eta *eragin* (gaur egun *jarraiki* ere sail honetan erabiltzen da):

- (93) Ideia onik ez zaio bururatzen ume honi
- (94) lehenbailehen ekingo diogu lanari

Beste aditz batzuekin, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: ez dute inoiz ere *nori* sintagmarik onartzen. Batetik ditugu *lotsa izan*, *bizi izan* eta horrelako egiturak dituztenak. Bestetik, *jakin* eta *uste ukan/izan*:

- (95) *Horrenbeste jenderen aurrean hitzegin behar duelako lotsa zaigu
- (96) Berehala jakin du egia osoa
- (97) *Berehala jakin dio egia osoa

(Euskaltzaindia 1993: 214)

Horren ildotik, eta *nori* sintagma aditz-sailak osatzeko elementu gisa hartuta, Oregik bere “Euskal aditzaren sailkapen jator baten bila” lanean (Oregi 1975) proposamen bat egiten du: adizkiak erakusten dituen *nor*, *nork* eta *nori* marketan oinarritzea. Eta, hala, ondoko sailak proposatzen ditu:

— NOR-(NORI): *izan*, *etorri*, *ibili*, *joan*, *egon*, *etzan*...

— NOR-(NORI)-NORK: *ukan*, *ekarri*, *eraman*, *erabili*, *egin*, *ikusi*...

— NOR-NORI (*izeki*, *jarrai*, *atxiki*,...), horietako batzuk gerora aldatu direnak:

- NORK-NOR (HURA izuna): *izeki*, *jarrai*, *irakin*, *iraun*, *jardun*, *irudi*...
- NORK-NORI -NOR (HURA izuna): *jarrai*, *eutsi*, *ekin*, *iritzi*, *eragon*, *inotsi*, *erion*...

Honenbestez, bai Euskaltzaindiaren bai Oregiren sailkapenak oinarri hartuta, ondoko sailak ditugula esan daiteke:

— *nor*: *berdur izan...*

— *nor(-nori)*: *etorri, izan, ibili, joan, egon, etzan...*

— *nor-nork(-nori)* (*ekarri, eraman, erabili, egin, ikusi...*) eta bere azpimultzoak:

- objektua inesiboan azaltzen denean (lanean dihardu)
- *nor* sintagma, balio adberbialekoa denean (filmak hiru ordu iraun ditu)
- *nor*, izuna denean (*irakin, bazkaldu*)
- *nork* sintagma hartzen ez dutenean (euria hasi du)
- aditz esapide batzuk (*merezi izan, balio izan*)

— *nor-nori-nork* (*ekin, eutsi*) eta bere azpimultzoak:

- *nor* izuna denean (amari deitu diot)

— *nor-nori* (*bururatu, jarraiki*)

Aditz bakoitza zein sailetakoa den zehaztea hiztegiaren ardura dela dio Euskaltzaindiak.

Argi dago ez dagokiola gramatikari, baizik hiztegiari, aditz bakoitza zein sailetakoa den zehaztea... (Euskaltzaindia 1993: 205)

Hori da euskal aditz-*sailei* buruz aurkitzen duguna. Baina bestetik bada beste alderdi bat: *sail-aldaketak*:

Aditzak sailka multzokatu ditugun arren, sail batetik besterako aldaketak gertatzen dira. (Euskaltzaindia 1993: 208)

Euskaltzaindiak ohikoan proposatzen ditu (Euskaltzaindia 1993: 208):

— Inpertsionala, *nor* eta *nor-nork* sailekoentzat:

- *nor-nork* → inpertsionala

saltzaileak sagarrak garesti saldu ditu → sagarrak garesti saltzen dira

- *nor* → inpertsionala

hemendik joaten da autobusa egunero Donostiara → hemendik joaten da Donostiara

— Arazlea, *nor inkoatiboentzat*

- *nor inkoatiboa* → arazlea

aitona zaharra hil da → aitona zaharra hil dute

Eta azken sail-aldaketari dagokionez hauxe dio:

Aditzen semantika kontuan hartzen badugu, mota askotako aditzak ditugu (informazio hori, hain zuzen, hiztegiak eman behar digunez, ez dugu guk hemen kontuan hartuko, aditzen forma edo itxuran eraginik ez duen bitartean). Horietako batzuk inkoatibo deitzen ditugu. Aditz inkoatiboak dira egoera aldaketa bat adierazten dutenak edo ekintzaren hasiera adierazten dutenak: on-

tzia bete da diogunean edo aitona hil da diogunean, argi ikusten da hor egoera aldaketa bat suertatu dela: hutsik zegoen ontzia lehenik, eta orain betea dago; aitona bizirik zegoen, baina orain ez da bizi. (Euskaltzaindia 1993: 210)

Beraz, hiztegiak esan behar du alde batetik aditz bat gorago aipatu ditugun zein sailetakoa den, eta bestalde, zein mota semantikotakoa den.

Hiztegietara jotzen badugu, sail hauek errepresentatzeko, laguntzaile-motak aurkitzen ditugu: DA, DU, DIO, ZAIIO. Eta beroietan ez dira ondo bereizten ez aipaturako sail eta azpisailak, ez sail-aldaketak, ez mota semantikoak. Esaterako:

- *Euskal Hiztegian* (Sarasola 1997) eta *Hiztegi Batuan* (Euskaltzaindia 2000) DA, DU, DA-DU, DIO eta ZAIIO erabiltzen dira. DA laguntzailea *nor* nahiz *nor(-nori)* aditzentzat erabiltzen da; DU, *nor-nork(-nori)* eta honen azpisaillekoentzat; DIO, *nor-nori-nork* eta bere azpisaillekoentzat; ZAIIO *nor-nori* sailekoentzat; eta DA-DU, bai DA bai DU sailekoak direnentzat, dirudienez, goian aipatu diren “nor inkoatiboa” eta bere arazlea adieraziz.
- *Elhuyar hiztegian* (Elhuyar 2006) DA, DU, DA/DU, DIO, ZAIIO erabiltzen dira, goiko bi hiztegien moduan.
- *3.000 Hiztegian*, aditzaren forma eta kategoria gramatikala ageri zaizkigu.

Jakina, hiztegiotan mota semantikoak ez baizik eta aditzen adierak zehazten dira, eta horien barruan zenbaitetan beste ezaugarri batzuk ere aipatzen dira; hala nola: [zerbait], [usaina], [norbaiti], ‘osagarriak *-i* kasu-atzizkia duela’... Ezaugarri horien bidez, adiera horretan sintagma jakin batek har ditzakeen hitzen multzoa edo sintagma-mota murrizten dute.

2.3. Estuguneak

Proposamen hauek aztertu ondoren, eta aditz bat sailkatzeari ekiten diogunean, ebatzi gabeko zenbait alderdirekin topo egiten dugu.

2.3.1. Aditzaren eskakizunak direla-eta

Aditzak erabakitzen du perpaus batean *nork* edo *nori* sintagmarik agertu behar duen edo ager daitekeen. Honenbestez, horrek esan nahi du *nor* sintagma aditz guztiek onartzen dutela beti?

Nor-nork saileko azpimultzotan ikusi dugu ez dela horrela, zenbait aditzek *nor izuna* dutelako. Beraz, *nork* eta *nori* sintagmez gain, *nor* ere beharrezkoa ote den aditzak erabakitzen du. Edo bestela, erregela orokor bat izan beharko genuke aditz guztioi *nor* onartzeko, salbuespenak aditz konkretu bakoitzean zehaztuz.

2.3.2. Sintagmen aukerakotasuna dela eta

Nor-nork sistemako aditzetan absolutiboan eta ergatiboan dauden sintagmak hiztunak *ezkutuan* uzteko aukera duela dio Euskaltzaindiak; eta bestalde, *nor izuneko* (deitu dio, irakin du) azpimultzoak ditugu. Zein da “ezkutuan uztea”ren eta “nor izuna izate”aren arteko aldea? *Nor* ezkutuan egotea, zer da berez, *nor* beharrezko elementua izatea baina beti agertu beharrik ez izatea? *Nor* izuna, berriz, *nor* ezinezkoa izatea?

Esaldi batean *nor* gabe ageri zaigun aditz bat berehala sailkatu beharko dugu hauetako sailen batean: “ez du abesten” moduko esaldi batean zer pentsatu behar dugu, *nor* ezkutuan dagoela? Eta zer da ezkutuan dagoen *nor* hori?

Izan ere, ordenagailu baten begietan bi fenomeno horiek berdin agertzen dira: *nor* elementua ez dago esaldian. Aditz berrien sailak automatikoki eskuratzerakoan, ez genituzke mota horiek bereiziko bestelako informaziorik gabe esaldian. Desberdindu nahi baditugu, zerbait gehiago erantsi beharko dugu: elipsia, esaterako, baldin eta baldin badago.

2.3.3. *Sail-aldaketak direla-eta*

“Sail-aldaketa” zer den ez da guztiz argi geratzen. *Nor-nork* sailekoa den aditz bat (*saldu*) *nor* saileko izatera pasatzen denean, ez da besterik gabe *nor* saileko bihurtzen, baizik eta *nor* sailez adierazten den *inpersonal* izatera pasatzen da. Aldiz, *nor* sailean sailkatuta dauden aditzak (*berdur izan, etorri, egon...*) ez dira inpersonalak. Beraz, “sail” hitzari, eta orobat “sail-aldaketa”ri ematen zaion estatusa argitu beharra dago.

Bestetik, sail-aldaketa ohikoenak bakarrik azaltzen ditu Euskaltzaindiak, eta hauek *nor* eta *nor-nork* sailekoei dagozkie bakarrik. Aditzak esaldietan aztertzen haserakoan, ordea, kasuistika ugariagorekin aurkitzen gara berehalakoan.

Euskaltzaindiak *nor* izunekotzat jotzen ditu josten ikasi du eta bazkaldu du modukoak (azken hauek Iparraldean DArekin erabiltzen direla ohartaraziz). Baina badakigu *ikasi* aditzak *nor-nork* erabilera arrunta ere baduela (matematika ikasi du); eta bestalde, zenbait hiztunek oilaskoa bazkaldu dut modukoak ere onartzen dituztela. Orduan, aditz bera bi sailetan ageri zaigu. Bi sailetakoa bada, bi aditz desberdin dira? Josten ikasi duko *ikasi* matematika ikasi dukoa desberdina da? Sintaktiko bai, argi dagoenez, baina *ikasi*, sarrera gisa aztertu behar badugu, bi sarrera emango dizkiogu? Edo sarrera bakarra eta bi homografo, sintaxiari loturikoak?

Literaturan hainbat sail-aldaketa aztertu izan dira (Levin 1993, Vazquez et al. 2000, De Rijk 2003, besteak beste). Lan hauetako askotan *alternantzia* terminoa erabiltzen da sail-aldaketa adierazteko. *Objektu inespezifik*oaren alternantzia, esaterako, askotxo aztertu den beste sail-aldaketa ezaguna dugu; haurrak ez du abesten edota ume honek jaten du modukoak horrelakoxetzat jotzen dituzte. Aldaketa honetan zehazki, *informazio orokor / informazio zehatz* oposizioa dagoela aldarrikatzen dute (Vazquez et al. 2000, Levin 1993). Beraz, hemen ere ez da, berez, sail-aldaketa hutsa gertatzen. Izatez, laguntzaileari begira ez da aldaketarik gertatzen, baizik eta aldaera horietako bakoitzak *ñabardura* bat eransten dio aditzaren erabilera horri: *nor* dagoenean, objektu jakin bati buruzko informazio zehatza ematen da (haurrak *bertso* bat abestu du); *nor* gabekoan, berriz, ez du zehaztasun horrek axola, baizik eta aditzak adierazten duen ekintza bera azpimarratu nahi da (*abestea* haurren gaitasunen eta aukeren artean dago, honakoan haurrak ez ekintza hori egiten). *Nor* izuneko aditzen artean sailkatuta dauden batzuek ez dute horrelako *ñabardurarik* adierazten.

Argi dago denak ez direla maila bereko sail-aldaketak, baina hain zuzen Euskaltzaindiak ere horixe esaten du aztertzen dituen alternantzietan. Bata semantikoki esanguratsua da: inkoatiboa; eta bestea, besterik gabe *inpersonal*, horrek esan nahi duena zehaztu gabe.

Gauza da, seguruenez sail desberdinak planteatzerakoan sail horretako jokaera sintaktikoa *bakarrik* erakusten duten aditzak izaten direla gogoan. Baina testu erreaklek erakusten digute aditz berarekin egitura anitz agertzen zaizkigula.

2.3.4. *Sailak eta azpimultzoak bereizteko ezaugarriak*

Nor izuneko aditzen artean, hiru azpimultzo daude:

- *Nor* sintagmaren orde *inesiboa* hartzen dutenak: *jardun, ikasi...*
- *Nor* sintagma, berez, *sintagma adberbiala* denean: *iraun, pisatu...*
- Objekturik hartzen ez dutenak: *irakin, funtzionatu...*

Argi dago azpimultzo hauen arteko desberdintasuna azaltzeko, *nor*, *nori* eta *nork* kasuez gain bestelako ezaugarriak ere izan behar direla kontuan:

- *jardun, ikasi*: *non* kasuak desberdintzen du besteetatik
- *iraun, pisatu*: *nor* sintagma, sintagma *adberbiala* da. Objektua ez den beste zerbait da: *zenbat* edo *neurria* adierazten duen osagai bat. Ezaugarri semantiko bat sartzen dugu, eta horrek ematen du desberdintasuna
- *bazkaldu, dimititu*: *nor* benetan izuna da; hots, ez dago bestelako sintagmarik *nork* sintagmaz gain.

Ondorioz:

- *Nor* izuneko azpimotak adierazteko ezaugarri gehiago zehaztu behar dira:
 - *nor* izuna - *nork* - *non*: *jardun, ikasi*
 - *nor* *zenbat* - *nork*: *pisatu, iraun*
 - *nor* izuna - *nork*: *bazkaldu, dimititu*
- *Neurria* (edo *zenbat*) erabiltzen dugun bezalaxe, beste osagai sintaktikoak ere (*nor, nori, nork, non...*) modu horretara zehaztu behar genituzke, aditzak maila berean deskribatzeko. Izan ere, “bi urte”k *iraun* aditzarekin *zenbat* adierazten du (iraupena, zehatzago esateko), baina bi urte ditu moduko esaldi baten aurrean, ez zaigu bururatzeko “ukan” “pisatu” eta “iraun” aditzen multzokoa denik. Adibide horretan objektua ikusten dugu, komunztadurari begiratuta, bederen. Beraz, sintaktikoki elementu bera dela dirudi, baina aditz batekin eta bestearekin duen balio semantikoa da aldatzen dena.

2.3.5. *Ondorioak*

Esan dugun guztiarekin:

- Badirudi *saila* aditzaren beraren sailkapenari dagokiola, eta *sail-aldaketa* egitura mailako zerbait dela. Alegia, egiturek beraiekin *ñabardura* sintaktiko-semantiko batzuk dituzte (DA-inpertsionala / DU ez-inpertsionala, DA-inkohatiboa / DU-arazlea, DU-orokorra / DU zehatza e.a.) eta aditzek, diren sailekoak direla, batzuk onartzen dituztela eta beste batzuk ez. Edo besterik gabe, ez dute *sail-aldaketarik* eralusten. Goldberg-ek (1995) —eta García-Miguelek (1995) eta Rebolledok (2002), harena onartuz—, ikuspuntu honetatik azter-

tzen dituzte aditzak eta egiturak. Hala, aditz horrek esaldian lortzen duen balio semantikoa bere sailak eta egiturak ematen dionaren arteko batura da. Hori da *Construccionismo*aren korrontean aztertzen dena.

- Sailak egiteko garaian NOR, NORI, NORK eta batzuetan NON kontuan hartzen diren bezala, zergatik ez hartu beste sintagma-motak ere?
- Sail-aldaketa batzuk orokorrak dira (aditz askok onartzen dituztelako) eta beste batzuk, partikularrak (aditz gutxi batzuek onartzen dituztelako). Izatez, autore batzuek, alternantzia orokor batzuk (euren ustez semantikoki esanguratsuak direnak) sailak definitzeko erabiltzen dituzte (Vázquez et al. 2000, Levin 1993): alternantzia esanguratsu berak onartzen dituzten aditzak, multzo edo sail berekoak dira, sail hauek semantikoak gertatzen direlarik.

Hala, Levin-en (1993) abiapuntua erakargarria irudi, eta Vázquez et al.en (2000) eskarmentua oinarri, 100 aditzen azterketa burutu nuen (Aldezabal 2000, 2004), autore hauek sailez eta alternantziez esaten dutena kontuan hartuta.

Azterketa horretatik, hurrengo ondorioak atera nituen:

Aditz guztien erabilerak aztertzerakoan (eta ez aditz bakarrenak edota erabilera bakarra hainbat aditzetan) argi ageri da aditz bakoitzak egitura *usu* bat (egitura prototipiko bat) edo batzuk erakutsi ohi dituela, aditz guztietan errepikatzen diren *balio semantiko orokorren* bat adierazteko. Balio semantiko orokor hauek ez dira adierak, hiztegietan agertzen diren modukoak, baizik eta kategoria kognitibo oinarritzkoak, predikatu-mota orokorrak, *sailak* osatzeko baliagarri izan daitezkeenak.

Zehazki esanda: aditz bakoitzean badira egitura batzuk hitz desberdinekin askotan errepikatzen direnak, eta egitura horietako bakoitza oro har balio semantiko bati lotzen zaio. Zenbaitetan egitura usu bat baino gehiago dago balio semantiko beraren alderdi desberdinak adierazteko; hori da, hain zuzen, alternantzietan gertatzen dena. Honenbestez, delako aditzak onartzen dituen egitura horiek guztiak dira bere *azpikategoriazio-patroiak*. Patroi hauek, azken batean, egitura sintaktiko-semantikoak dira, bietatik (sintaxitik eta semantikatik) dutelako.

Aditz batzuek, orduan, bat egiten dute adieraz ditzaketan predikatu-motetan. Horri begira sail berekoak dira. Baina horrek ez du esan nahi horretarako egitura sintaktiko berak erabiltzen dituztenik, nahiz eta askotan berdinak izan. Ez eta alternantzia berak onartzen dituztenik, askotan halaxe izan arren.

Aditzak bere ohiko patroia sintaktikoetan parte hartzeari, *sintaxi aske* izaera aitortuko diogu. Hots, aditz horrentzat horiek dira jokaera sintaktiko arruntak. Hortik abiatuta, patroia horietatik aldentzen diren hainbat esapide edo unitate konplexu daude, eta geroz eta gehiago aldendu horietatik orduan eta *ez-askeagoa* da sintaxia aditz horrentzat. Gerta daiteke, hala ere, patroietatik aldendu gabe (hots, sintaxi askari eustsiz) hitz bat aditz berorrek askotan agertzea eta denborarekin unitate konplexu gisa finkatzea. Edota besterik gabe, finkatu egiten da, azterketa sakonagoa behar duten arrazoiak direla medio. Eta jakina, batzuetan ez dago argi patroia baten aurrean gauden edota esapide batenean. Nolanahi ere, azpikategoriazio-patroien azterketarekin era berean esapideena (edo unitate konplexuena) ere egiten dugula esan nahi dut, albo-ondorio gisa.

Hori guztia hobeto ulertuko dugu 2. atalean. Orain, ikus dezagun, azpikategoriazioa ikuspuntu honetatik aztertuta, zein ezaugarriekin eta nola definitu beharko genukeen.

2.4. Definizioa, azkenean

Esandako guztiak kontuan hartuta, aditzen azpikategoriazioa da, hasieran ikusitako definizioari jarraiki, aditzak eskatzen dituen elementuen gauzpen sintaktikoa, baina eskakizun horiek predikatu-mota orokor gisa zehaztuta.

Aditz bakoitzak ez du jokaera bera predikatu mota jakin bat gauzatzeko, ez deklinabide-kasu aldetik, ez osagai semantiko/sintaktiko kopuru aldetik, ez osagai semantiko horien azpian ager daitezkeen item lexikalen aldetik, ez osagai semantiko horiek esaldian agertzeko eta berreskuratzeke gaitasun aldetik. Beraz, azpikategoriazioa definitzeko:

- Lehenengo pausua, aditz bakoitzak zein predikatu mota adieraz ditzakeen zehaztu behar da, predikatu mota horiek gauzatzeko beharrezkoak dituen osagaien kopurua eta beren izaera semantikoa definituz; azken batean, *rol semantikotzat* har daitekeena definituz.
- Behin hori eginda, predikatu mota bakoitza sintaxian gauzatzeko aukerak zehaztu behar dira:
 - Osagai bakoitzaren gauzpen desberdinak, deklinabide-kasuaz zehaztuta.
 - Rol semantikoarekin batera, hautapen-murriztapenak (ezaugarri semantiko zehatzagoak, item lexikalari berari dagozkionak berez), murriztapena argia denean eta betiere predikatu motak edota alternantziak bereizten baditu.
 - Osagaiak sintaxian ageri ez direnean berreskuratzeke mekanismoak; hots, elipsi- eta inespezifikazio-gaitasunak.
 - Osagaien artean dauden dependentzia-fenomenoak (osagai bat agertzeko bestea agertu behar izatea nahitaez).

Ildo honetan kokatzen dira lan ugari. Lehengo atalean aipatutakoez gain (Verbnet, PDT, Framenet) gaztelania aztergai duten beste hainbat badaude: ADESSE (García-Miguel 2005), SenSem (Alonso et al. 2005). Euskaraz ere hainbat saio eginak ditugu Ixa taldean: Propbank gidalerroei jarraiturik bata (Aldezabal 2006), eta SenSem-eko gidalerroak jarraiturik bestea. Azkeneko honen emaitza, hain zuzen, VOLEM (ABM/acs/XI 2003-12) deritzan proiektu batean garatu genuen, eta ondoko web-orrian ikusgai jarri: <http://grial.uab.es/multi/>

3. Adibide batekin hobeto: *eman*

Saia gaitezen esan duguna *eman* aditzarekin eta honen baliokidetzat jo ohi den gaztelaniazko *dar* aditzarekin aplikatzen. Konparaketak are argiago uzten du fenomeno hauen orokortasuna.

Zergatik itzultzen dugu berehalakoan *eman* aditza *dar* aditzarekin gaztelaniaz? Bi aditzok bi hizkuntzetan oinarritzko kategoria kognitibo bera adierazten dutelako (adieraz ditzaketen beste hainbat gauzen gaintetik) eta horixe delako aditzon esanahi usua edo ustez arruntena: *transferentzia*zko kategoria kognitiboa. Baina beste

hainbat ahalmen ere konpartitzen dituzte: transferentziazko eskematik abiatuta bestelako xehetasunak dituzten esanahiak sortzekoa, eta baita, beste hitzekin konbinatuz, unitate konplexuak osatzekoa ere.

Horixe ikus dezakegu Morante-k (2004) *dar* aditzarekin eta Aldezabalek (2004) *eman* aditzarekin egindako azterlana konparatuz. Bi lan hauetan, aditzon egiturak eta esanahiak sailkatzeko ikuspegia guztiz berdina izan ez arren, azpiko fenomenoak askotan bi hizkuntzetan berdina dela ikusiko dugu.

Abia gaitezen euskarazko corpusean¹ aurkitu ditzakegun adibide batzuetatik:

- (1) Marrazkiak maite dituenez gero, paper zuria eta koloretako lapitz batzu eman dizkiot. [NIK] [HARI] (EusCor)
- (2) Urte askoan kontzertu asko eman dut berarekin. [NIK] (EG)
- (3) (...); eta orduan izan zen Ixidro anaia txikia marruka hasi zenean, karraiki bizian, narrua kendu izan baliote bezala, amatxok azkenik muturreko eder bat eman zion arte. [HARI] (EusCor)
- (4) Jakintsuak esanda, mozorroztea errutina hautsiz gure izaera adierazteko bide ezinobea dela uste dugu eta gainera horrela beste urte guztian betiko formak gordetzen jarraitzeko indarra ematen digu [HARK] [GURI]. (EusCor)
- (5) Onartezina da eta herritarrei nazka ematen die [HORREK] (EG)
- (6) Otaegik harri-jasotze munduan lehen pausuak eman ditu. (EG)
- (7) Gipuzkoako Caritasetik jakinarazi digutenez, kontu korronteetan diru dezentente bildu da jada eta eskura ere askok eman dute laguntzatxo. (EG)
- (8) Minutu pare bat besterik ez dut horretan eman, baina atetik irten ondoren ez dut kalean Altdorfer jauna ikusi. (EusCor)
- (9) Delikadezak, sentiberatasunak, fineziak... izaturik, hemendik ihes egin dutela ematen du. (EusCor)

Zein azpikategorizazio-patroiren azpian sailkatu behar ditugu adibideok?

Corpusaren maiztasunari begiratzen badiogu, (1) adibideko egitura (*nork-nori-nork*) oso ugaria da, eta ondoko ezaugarri orokorrak ditu: *nork* izaki biziduna izaten da, *nor* objektu konkretu bat eta *nori* beste izaki bizidun bat. Hona horrelako beste bi adibide:

- (10) Gero Pistorius organista zaharrak paperezko pezeta, hogەرleko eta bosdu-rokoak eman zizkidan [NIRI] horiekin batera gordetzeko, baina mesede baten truke. (EusCor)
- (11) Beso ezkerrez besarkatuko du, gizonak berak eutsiko dion kopa batean emango dio edaria [HARK] [HARI] hitz goxoak murmuriatzen dizkion bitartean. (EusCor)

Hauetan erraz uler dezakegu transferentzia bat gertatzen dela: 'norbaitek zerbait (konkretua) ematen dio norbaiti'. Gaztelaniaz ere halaxe gertatzen da.

(2)ko adibidean, ordea, goian aipatu dugun egitura horretako zenbait elementu aldatu egiten dira: *noririk* ez dago eta *nor* ez da objektu konfreu bat (*kontzertu*). Cor-

¹ *Euskaldumon Egunkaria* eta *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa* izan dira corpus-iturri nagusiak, EG eta EusCor laburtzapenez adieraziak, hurrenez hurren. Ohar bedi, ordea, zenbaitzik artikulu-rako laburtu edo moldatu egin ditudala, eta beraz ez daudela corpusean bezalaxe.

pusaren maiztasunari begiratzan badiogu, horrelakoak maiz agertzen zaizkigu, eta askotan objektua abstraktua da eta aditza aspektu burutugabeko formaren batean doa. Horrelakoetan badirudi ekintza bera azpimarratu nahi dela helburu zehatza zein den gorabehera. Nire ustez hauetan inpersonal moduko bat egin nahi da: *nor-nori-nork* egitura horretako *nori* inpersonalizatu nahi da, *nor-nork* egiturakoetan *nor*ekin gertatzen den moduan. *Nor* objektu konkretua den adibide gutxi batzuk ere badira:

- (12) kartzeleroak, medikuak, psikologoak, irakasleak... Medikuen asistentzia ezin da deskribatu, lotsagarria da, edozer gauzarentzat pilulak **ematen** dituzte [HAIEK] eta kito. (EG)

(2)ren modukoak Morante-k (2004) transferentziako eskema usutik aldentzen diren *unitate*tzat jotzen ditu (*dar un concierto / dar una conferencia*), eta baliokidetzat hau egiten du: dar = producir. Nire ikuspegitik, ordea, transferentziako eskema bera izango genuke, baina helburua desagerturik, *nor-nori-nork* eskemarekiko aldaera osatuko luke.

(3) moduko adibideetan *nor-nori-nork* eskema ageri zaigu, baina objektuaren izakerak *eman* aditzaren esanahi “arrunta” aldatzen duela dirudi. Morante-k hain zuzen horrelako erabilerak (*dar una patada / dar un golpe*) “dar = ejecutar” esanahia duten unitateztzat jotzen ditu. Gauza da *muturrekoa* ekintza bat dela (ez behintzat objektu konkretua), negatibotzat jotzen duguna gainera; baina azken batean zerbaiten transferentzia baten berri ematen du, dela negatiboa, dela positiboa.

Gauzak are gehiago zailtzen dira (4) eta (5)en moduko adibideetan, non *nor* nahiz *nork* kasuan dauden entitateak abstraktuak diren, eta *nori* kasuan dagoen entitatea gizakia edo behintzat izaki biziduna, borondatez egiten ez duen ekintza batean murgilduta aurkitzen dena. *Nor* kasuan doan entitateak izaki bizidunei dagokien egoera edo sentimenduak adierazten ditu, eta ondorioz *eman* aditzak transferentzia esanahia galdu eta egoera psikologiko bat adieraztera pasatzen dela dirudi. Morante-k “dar = provocar” balioa ematen die hauei.

Balio hauetan, eta baita (3)koen modukoetan ere, badirudi parte-hartzaileen borondateak garrantzia duela: (3)koetan hartzaileak ez du borondatez jokatzeko; alderantziz, badirudi borondatearen aurkako zerbait jasaten duela; eta (4) eta (5)en modukoetan hartzailearen aldetik (eta batzuetan ez eta igorlearenetik ere) ez dago borondatezko asmorik; besterik gabe ekintza gertatu egiten da eta hartzaileak jasan egiten du. Horregatik hartzen du hartzaileak “jasale” zentzua.

Baina zein neurritan hartu behar dugu kontuan borondatearen ezaugarria aditz baten osagai semantikoak definitzeko garaian? Transferentziako eskeman beti ulertu behar al da hartzaileak eta igorleak transferentzia borondatez (borondate onez) egiten dutela? Hori esatea gehiegizkoa da nire irudiz, esaldiz esaldi testuingurua erabat aztertzea ekarriko bailuke horrek. Testuinguru hori nolakoa den oraindik zehazteko dagoen honetan, aukera orokorraren alde egin dut: transferentzia eskema planteatu guztientzat, baina azpimarratuz egituraren arabera eta entitateen arabera *ñabardurak* daudela batetik bestera. Nolanahi ere, badira balio hau izanik unitate konplexu bilakatu direnak, objektuak ez duelako ohiko mugatzailea ageri; *min emanen* gertatzen dena, esaterako.

Gauza argi bat badela dirudi, hala ere: *nor* sintagman doan izena abstraktua deanean transferentzia-ekintzarekin batera objektua ere une horretan sortzen da. Ob-

jektua konkretua denean, objektu hori dagoeneko sortua dago, eta transferentziaren berri ematen da. *Aldaketa*² kategoria kognitiboan (beste aditzen azterketatik bereizten den beste oinarritzko kategoria bat) ez dirudi hori gerta daitekeenik: *nor* kasuan dagoen entitateak sortua egon beharra du aldez aurretik; ezinezkoa dirudi aldez aurretik sorturik ez dagoena izaeraz edo lekuz aldatzea. Horixe da Vazquez et al.ek (2000) *afektazioaz* mintzo direnean diotena:

Por otro lado, distinguimos entre entidades afectadas y efectuadas, es decir, las de nueva creación. Así, consideramos que no podemos hablar de la afectación de una entidad que no existe con anterioridad al evento. (Vázquez et al. 2000: 163)

Eta horrexegatik zehazten dute aldaketako objektua *gai ukitu* (afektatu) gisa (gai hutsaren ordez). Baina aztergai honek beste aditz batzuetara eramango gintuzke.

(6) eta (7) modukoak, ordea, ez dira sartzen transferentziazko eskema usuaren barruan. Hauetan eskema usu horretatik kanpo geratzen diren elementuak ditugu. (6) adibidean zehazki *nori* elementua ez da aukerakoa; ez dago eliditurik edo inespzifikaturik. “Pausuak eman” diogunean, *nori* agertzea ezinezkoa da; bere sintaxi asketik urrundu egiten da. Eta horrekin batera baita transferentziazko esanahitik. Hori dela eta, hor unitate konplexu baten aurrean gaudela dirudi. (7)an ere *eskura* elementua ageri zaigu, *emanen* transferentziazko eskema usutik aldentuz. Esanahia transferentziazkoa da, baina eskema ez da usua. Hori horrela, *eskurak emanekin* unitate bat osatu eta gero transferentzia adierazten duela dirudi. Ohar bedi, gainera, *nora* sintagman ageri den entitatea *nori* sintagman doan entitatearen jabetzakoa dela (kasu honetan *zati-oso* harremana dugu, zehazki), eta hori gertatzen da transferentziazko eskeman *nori* eta *nora* sintagmak batera ageri diren guztietan (aztertutakoetan, bederen); gainera, orduan bakarrik dirudi onargarri *nora* sintagmak. Erabilera hauen modukoak gaztelaniaz ere bereziak dira eskema usuarekiko (*dar un paso (* a alguien)*; *dar en mano*)

(8) eta (9) adibideetan, bukatzeko (eta gehiago luza gintezke), ez dago transferentziazko esanahirik; eta egitura sintaktikoak ere erabat desberdinak dira transferentziarekiko. (8)an *jarduera* bat dugu, norbaitek zerbaitetan denbora jakin batean egiten duena, eta (9)an, mendeko konpletibo batez baliatuta, *ustezko adierazpen* bat egiten da. Beste hizkuntzetan, gaztelaniaz adibidez, balio hauek ez dira *dar* aditzarekin itzultzen.

Hala izanik, eta adibide hauek aztertuta, *eman* aditza 3 predikatu-mota adierazten ditzakeen aditz gisa definituko genuke, eta predikatu hauetan gauzapean sintaktikoak honelaxe definituko genituzke:

- ‘Zerbaitek (bizidun edo bizigabe) zerbait (ez nahitaez konkretua) zerbaiti (ez nahitaez bizidun) eman’ → Transferentzia: abiapuntua_ERG³, gaia_ABS, helburua_DAT
ERG eta ABS elidi daitezke. DAT eta ERG inpersonaliza daitezke.

² Egoerazkoa nahiz kokapenezkoa izan daitekeelarik.

³ Hauek dira laburtzapenen adieraziak: ERG: ergatiboa, ABS: absolutiboa, DAT: Datiboa, INE: inesiboa eta ELA_KONPL: -ela erlazio-atzizkiak gauzatzen den konpletiboa.

- ‘Denbora zerbaitetan eman’ → Jarduera: *esperimentatzailea_ERG*, *denbora_ABS*, *jarduera_INE*
INE elidi daiteke eta baita inespezifikatu ere. ERG elidi daiteke.
- ‘iruditu’ → *gaia_ELA_KONPL* → Ustezko adierazpidea

Aipatu gabe geratu diren beste hainbat kasu badira, eta horietako askok unitate konplexuekin eta esaera finkatuekin dute lotura. Izan ere, erabilera batzuetan ulertuzat ematen diren elementu ezkutu asko daude, eta horrek egitura —eta askotan balio semantikoa bera— aldatzea dakar, ondorioz unitate konplexuei edo esapide luzeagoei bidea irekiz: Eman egingo dizut! edota Nor da ematen? Esaldietakoan ditugu horren adibide, non lehenengoan [kolpea] ulertuzat ematen dugun eta bigarrenean [kartak].⁴

Baina, jakina, askotan zalantzak daude predikatu-mota baten aurrean gauden edo unitate konplexuen aurrean, maiztasunak eta finkatze lexikoak ondo aztertu arte. Horrelakoak dira, adibidez, leihoak *iparraldera ematen* du modukoak, edo beste aditzetan ere aurkitzen ditugunak (*gurea bildu*; *herrira ezkondu*...). Hauetan ez dago argi unitate konplexu gisa aztertu behar diren (*iparraldera/hegoaldera/ekialdera/mendebaldera eman*; *gurea bildu*; *herrira ezkondu*) edo beste predikatu orokor edo usu gisa: -ra eman (kokapena?): -ra bildu / -ra ezkondu (kokapen- eta egoera-aldaketa?).

Argi dago hemen esandako guztia hautatutako ikuspegiaren eta sistemaren barruan ulertu behar dela, eta aukera bat besterik ez dela. Gauza bera aztertzeko ikuspegiak desberdinak izan daitezke, jakina. Morantek, esaterako, proposatzen dituen unitate eta balio semantikoak bigarren hizkuntzaren ikasketari begira egiten ditu. Nire ikuspegia euskara bera eztertzea eta ezaugarriak nolabait modu sistematiko batean biltzea izan da, horrela beste maila linguistikoko atazetan baliagarri izan dadin; edo, bederen, ustez hala izango delakoan.

4. Bukatzeko, nolabait esateko

Orain arte esandakoak eta hemendik aurrera esan beharrekoak egiaztatu eta sakon berraztertzeko, datu errealak behar ditugu; areago, gure helburua datu errealak aztertzea bada. Eta orain arte Ixa taldean egindako tresneria konputazionalak⁵ horretan asko lagundu dezakete.

Corpus-adibideak eta datu estatistikoak eskaintzen, esaterako. Azpikategorizazio-patroietan zehaztu ditugun deklinabide-kasuak delako aditzean maiztasun handienarekin agertzen direla esan dugu, baina era berean horietako batzuek elipsirako joera handia dute. Hori benetan horrela den berraztertzeko, patroia osorik jarraitzen duten adibideak, eta patroiko elementuren bat falta dutenak konpara daitezke. Datu horiek automatikoki lor ditzakegu, alde zurretik maila morfosintaktikoan etiketatuta dagoen corpus batean bilaketak eginez. Patroian jarrita ez dauden deklinabide-kasuen maiztasuna ere atera daiteke, agerian agertzeko euren artean joera desberdinak ote dauden ikusteko. Agerkide-tza-maiztasunak ere atera daitezke, unitate konplexu baten aurrean edota patroï orokor batenean gauden aztertzeko.

⁴ Elhuyar hiztegi elebiduneko (Elhuyar 2006) adibideak ditugu hauek.

⁵ <http://ixa.si.ehu.es>

Azpikategorizazio-informazioa lexiko konputazionalen txertatuta, berriz, aukera hauek egon litezke:

Hasteko, aditzak corpuseko testu batean informazio horrekin hornituta izanez gero, esaldian bertan ageri dituen sintagmekin konparatu eta bat egiteak konproba daitezke analizatzaile sintaktiko automatikoen bidez. Horrekin predikatu-moten artean aukeratzeta posible izan daiteke: esaterako, *emanen* esaldi batean *nori* baldin badago, zuzenean transferentziatzeko eskema, eta beraz balioa, esleituko litzaioke, besteak baztertuz.

Itzulpenei begira, eta helburuko hizkuntza iturburukoaren antzera zehaztuta badago, itzulgai diren hitz guztien artean, predikatu-mota mailako bat egiteak egiazta daitezke. Horrela, seguruenek, itzulpen-aukerak murriztu egingo dira.

Honek guztiak, hala ere, azalpen eta ikerketa sakonago bat beharko luke. Hemen, besterik gabe, etorkizunean jorratzeko bideak plazaratu ditut, ildo automatikoa ezinbestean baliatu, aberastu eta birbaliatu beharra dagoela azpimarratuz. Gai batean geroz eta gehiago sakondu orduan eta aztergai gahiago sortzen dira ikertzeko; horixe baita azken batean, ikerkuntzaren funtsa.

Bibliografia

- Aldezabal, I., 2004, *Aditz-azpikategorizazioaren azterketa, sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean. 100 aditzen azterketa zehatza Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta metodo automatikoak baliatuz*, Doktoretza-tesia, UPV-EHU.
- , 2006, “Estudio preliminar para la creación de Euskal PropBank” Seminario *SERES, Perspectivas de análisis de la unidad verbal*, Castellón I. & Fernández A. eds., Universitat de Barcelona.
- , Aranzabe M., Atutxa A. & Lersundi M., 2002, *Levin-ek English verbs classes and alternations (1993) liburuan ingeleserako proposatzen dituen alternantziak euskararekin parekatuz*, Barne-txostena, LSI saila, EHU.
- Alonso, L., Capilla, I., Castellón, I., Fernández, G., Vázquez G., 2005, “The SenSem Project: Syntactico-Semantic Annotation of Sentences in Spanish”, Proceedings of the International Conference RANLP, 39-46, Borovets, Bulgaria.
- Aurten Bai fundazioa, 1996, *Diccionario 3000 hiztegia. Euskara-gaztelania, gaztelania-euskara*, Bostak bat.
- Chomsky, N., 1965, *Aspect of the Theory of Syntax*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- , 1981, *Lectures on Government and Binding*, Mouton de Gruyter, Berlín, New York.
- Elhuyar fundazioa, 2006, *Elhuyar hiztegia. Euskara-gaztelania, castellano-vasco*, Elhuyar edizioak.
- Euskaltzaindia, 1993, *Euskal gramatika laburra. Perpaus bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fillmore, Ch. J., 1976, “Frame semantics and the nature of language”, in *Annals of the New York Academy of Sciences: Conference on the Origin and Development of Language and Speech*, Volume 280, 20-32.
- , & Baker, C. F., 2000, “FrameNet: Frame semantics meets the corpus”, Poster session at The Linguistic Society of America.
- García-Miguel, J. M., 1995, *Las Relaciones gramaticales entre predicado y participantes*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela.
- , & F. J., Albertuz, 2005, “Verbs, semantic classes and semantic roles in the ADESSE project”, Proceedings of the interdisciplinary Workshop on the Identification and

- Representation of Verb Features and Verb Classes, Saarland University. Saarbrücken. 50-55, <<http://webs.uvigo.es/adesse/textos/saarb05.pdf>>.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- Goldberg, A., 1995, *A Construction Grammar approach to argument structure*, University of Chicago Press, Chicago.
- Hajic, J., Panevová, J., Uřešová, Z., Bémová, A., Kolárová, V., Pajas, P., 2003, "PDT-VALLEX: Creating a Largecoverage Valency Lexicon for Treebank Annotation", in *Proceedings of The Second Workshop on Treebanks and Linguistic Theories*, Sweden, 57-68.
- Hale, K. L. & Keyser, S. J., 1987, "A view from the middle", Lexicon Project Working Papers 10, Center for Cognitive Science, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- , 1991, "On the Syntax of Argument Structure", Unpublished ms., MIT, Cambridge, MA.
- Jackendoff, R. S., 1990, *Semantic Structures*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Kipper, K., Trang Dang, H., Palmer, M., "Class-Based Construction of a Verb Lexicon", AAAI-2000 Seventeenth National Conference on Artificial Intelligence, Austin, TX.
- Levin, B., 1993, *English Verb Classes and Alternations. A preliminary Investigation*, The University of Chicago Press, Chicago and London.
- Morante, R., 2004, *Conocimiento lingüístico y recursos computacionales para una aplicación de aprendizaje de vocabulario asistido por ordenador: VOCABLE*, Tesis doctoral, Universitat de Barcelona.
- Oregi, J., 1975, "Euskal aditzaren sailkapen jator baten bila", *Euskera* XXV, 359-372.
- Palmer, M., Gildea, D., Kingsbury, P., 2005, "The Proposition Bank: A Corpus Annotated with Semantic Roles", *Computational Linguistics Journal* 31:1.
- Pollard, C. & Sag, I., 1987, *An Information-Based Approach to Syntax and Semantics: Fundamentals*, CSLI, Stanford.
- , 1994, *Head-Driven Phrase Structure Grammar*, The University of Chicago Press, Chicago.
- Pustejovsky, J., 1995, *The Generative Lexicon*, MIT Press, Cambridge, MA.
- Rebolledo, M., 2002, *Estructura sintáctica y significado verba*, Tesina, Universidad de Santiago de Compostela.
- Rijk R.P.G. de, 2003, "Euskarazko antipasiboez", in J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*, Iker-14, Euskaltzaindia, Baiona.
- Sarasola, I., 1997, *Euskal Hiztegia*, Kutxa fundazioa, Donostia.
- Vázquez, G., Fernández, A., Martí, M.A., 2000, *Clasificación verbal. Alternancias de diátesis*, Cuadernos de Sintagma 3. Edicions de la Universitat de Lleida, Lleida.